

# KUTTUNE





# KUTTUNE

Euskal musikaren erroen eta hurbileko  
kulturen inguruko ibilbidea, urrunagotik  
datozen beste soinu batzuen  
ohiartzunekin...



Kuttune susperraldian dagoen folk taldea da, **Nerea Quincoces perkusionista eta abeslariak zuzenduta.**

Kalitatezko zuzenekoa eskeintzen du, instrumentazio zein soinu giro ezberdinak sortuz bere **9 musikariek**in.

2023ko urrian **Elkar** argitaletxearekin batera "**Zer ote da?**" izeneko bigarren **diska** kaleratu dute.

Kuttuneren disko berriak taldearen soinuaren baieztapena da eta bere estilo propioaren egonkortasuna bermatzen du. Euskal Herriko zein Iberiar Penintsulako erro musikan oinarritutako **12 abestiz osatuta** dagoen diska da.

Abestien erdia **konponketa berriak** dira, bai melodia bai letra; beste erdia ordea, kantutegietatik hartutako melodiak dira.

Kuttune fusioa da, herri musika eta beste folkloreekiko anaitasun kulturala; batik bat Afrika mendebaldeko, ekialde ertaineko zein latinoamerikakoarekin egiten duena.

Bere lehen diskak gain, "**Hauxe da!**" izeneko, "**Airezko Etxea**" singlea du oso lan garrantzitsutzat. 2022ko abenduan grabatu zen, eta letra **Jon Maia** bertsolari handiak idatzi zuen.





Oraintsu 2022. urteko "Folkez Blai"  
lehiaketaren irabazle bilakatu dira.





**NEREA QUINCOCES** - Ahotsa, perkusioa, konponketak eta zuzendaritza

**CHARLIE SANTIAGO** - Ahotsa

**IRENE GIL** - Txirula eta ahotsak

**AINGERU TORRE** - Saxo tenorra

**PABLO DÁVILA** - Klarineteak eta alboka

**JORDI ARCUSA** - Baxu elektrikoa eta konponketak

**TANIA LOZA** - Pianoa eta ahotsak

**PABLO BUENO** - Gitarra eta ahotsak

**UNAI OLABARRI** - Bateria





## KUTTUNEKO KIDEAK



### **Nerea Quincoces (ahotsa, perkusioa eta konponketak)**

Jatorriz artziniegatarra, 1993an jaioa, bere goi mailako ikasketak Musikenen burutu zituen. Bere ikerketa lanak tradiziozko iberiar perkusioan jorratu ditu batez ere, Aldi berean afrikar eta afrokubatar perkusioak ikasiz. Besteak beste, Aleix Tobias, Madelin Espinosa, Vanesa Muela eta José Luis Quintanaren eskutik bereganatu ditu estilo ezberdin hauetako jakintzak. Tradizioaren inguruan duen kutsua dela eta sortu zuen Kuttune, erro musika eta fusioa lantzeko eta esperimentatzeko proiektu moduan.



### **Charlie Santiago (ahotsa)**

Jatorriz Getxokoa da (1986). Rock abeslari moduan 15 urteko esperientzia daukan abeslaria da, Ready Aim Fire, Southern lights, Athend eta beste hainbat banden partaide izanda. Abestez gain konposizio anitzak egin ditu eta diskoak grabatu ere bai. Hemendik gerora beste genero batzuk ikertu ditu, eta egun Div@s of Soul zein Goizargi Gospel Choir taldeetan soul eta gospel generoak interpretatuz hurrenez hurren.



### **Irene Gil de Soto (txirula eta ahotsak)**

Jatorriz Barakaldokoa da (1993). Bere flautako ikasketak Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan eta aurrerago espezializazioa Musikenen (Euskal Herriko Goi mailako Kontserbatoria) burutzen ditu. Ganbara musikako taldeetan, orkestretan zein bandetan hartu du parte. Egun irakaskuntza eta interpretazio musikalean banatzen du bere ibilbide profesionala, estilo musikal ezberdinak ikertuz.



### **Aingeru Torre (saxo tenorra)**

Jatorriz Bermeokoa da (1977), jazz eta musika modernoan espezializatutako saxofonista da. Egun irakasle lanak proiektu musikaletan parte hartzearekin banatzen du bere lan profesionala. Oso ibilbide musikalesko artista da, hasiera gitarristikoa euki zuen rockero moduan, eta baita musika experimentalak eragina du beregan. Estilo ezberdin hauen jakinduriak bat datoz musikari eklektiko honen inprobizazioaren filosofian.



### **Pablo Dávila (klarineteak eta alboka)**

Jatorriz Gasteizkoa da (1993). Bere klarinete ikasketak Musikenen (Euskal Herriko Goi mailako Kontserbatoria) burutu zituen. Bukatu bezain laster beka bat jaso zuen Philadelphiako "Temple University" unibertsitatean master bat ikasteko. Hainbat talde musikaletan hartu du parte, bai ganbera musikakoetan zein solista moduan. Sari ezberdinak jaso ditu bere espezialitatean. Gaur egun didaktika musikalaren inguruan dabil lanean eta instrumentu tradiziozional batzuk ikasten dabil, adibidez alboka.



### **Jordi Arcusa (baxu elektrikoa eta konponketak)**

Jatorriz Barcelonakoa da (1988). Bere ikasketak Taller des Musics-en hasi zituen musika modernoaren bueltan, eta bere goi mailako jazz ikasketak Musikenen (Euskal Herriko Goi mailako Kontserbatoria) egin zituen. Egun proiektu ezberdinetan dabil murgilduta, non musika tradizional zein modernoaren fusioa ematen den. Talde hauetan interprete zein arreglista eta konpositore lanetan ibiltzen da. "Nostrum BigBand"-en zuzendaria da, jazz estiloan oinarritutako taldea da eta bertako erroarekin fusionatzen den arreglo eta konposizioak egiten ditu.



### **Tania Loza (pianoa eta ahotsak)**

Logroñoakoa da jatorriz (1991) Goi mailako ikasketak Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan egin zituen, eta espezializazio masterra Madrilgo UAX unibertsitatean. Bere pianoko ikasketak Frantzia, Italian, Suitzan zein Belgikan sakondu ditu besteak beste. Solista moduan jo du Nafarroako Orkestra Sinfonikoak lagunduta, eta bai piano bai ganbarako kontzertuak eskeini ditu espainiako hainbat eszenatokitan. Orain jarduera pedagogikoa eta formazio koralen piano laguntzaile lanak bateratzen ditu.



### **Pablo Bueno (gitarra eta ahotsak)**

Zaragozan jaioa da 1986an. Magisteritza musikaleko ikasketekin hasi zen EHUan, eta musikarekin jarraituz gitarra klasikoko goi mailako ikasketak Musikenen (Euskal Herriko Goi mailako Kontserbatoria) burutu zituen. Klaseak zein kontzertuak ematen dabil egun, gitarra klasiko, akustiko zein elektrikoan temati ibiltzen da musika eskola eta talde anitzetan. Estilo ezberdinetako taldeetan da kide, folketik hasita, barrokotik jarraituz eta pop-rockarekin bukatuz. Hauek dira besteak beste bere bandak; Sarrabete, Kolme Katu, Soinuak Haizean, Capitán Tortuga, Miren eta Roberto Etxebarria.



### **Unai Olabarri (bateria)**

Jatorriz Igorrekoa da (1993). 2016an Musikenen goi mailako jazz ikasketekin, 2018an Groningen-eko Prins Claus Conservatorium-eko jazz interpretazio master batekin eta New York-en Queens College-ko bigarren master bat Fulbright Komisioko beka konpleto batekin osatzen du bere formakuntza. Azkenengo urteetan hainbat musikariekin jo izan du: Deborah Carter, Dave Glasser, Andrzej Olejniczak, Mariano Díaz, Joaquín Chacón, Víctor Merlo... Gaur egun Xahu, Kuttune eta North Coast Quintet taldeekin aritzen da.